
Hara!

Testua eta irudiak: **Miren Asiain Lora**

Azal gogorrean egina. 22 x 22 cm. 40 or. 13 €

VI. ETXEPARE SARIA (2012). HAURRENTZAKO EUSKARAZKO ALBUMAK
ISBN 978-84-7681-733-9. Pamiela

Atzo igerilekuan pasa nuen eguna.

Amona!

*Etixerako bidea hartu ordez,
amonak beste bide bat aukeratu zuen.
Ez genituen betiko etxe tristeak ikusi,
baso liluragarri bat baizik.
Zenbat kolore!
Nora goaz amona?*

Hara! magiaz beteriko kontakizuna da: teknika desberdinak abilki erabiliz eta maisuki nahastuz, nortasun bisual handiko album bat osatu du, egunerokotasunetik abiatuta fantasiaren erresumara jauzi egiten duena.

Protagonista haur bat da, amonak igerilekuan jasotzen duena, etxera laguntzen, berarekin zinemara joaten, erosketetara eramaten; baina amonak, aldi berean, mundu errealaren eta ametsezkoaren arteko giltza duela dirudi, eta haurrari lagunduko diola batetik bestera igarotzen.



Hara! liburua irabazle gertatu zen Etxepare Sariaren VI. Edizioan. Sari hau Nafarroako hainbat toki-entitateetako euskara zerbitzuek antolatzen dute Pamiela argitaletxearen laguntzarekin. Miren Asiain Loraren lana 16 lanen artean hautatu zuen Patxi Zubizarretak, Iñaki Agirrezabalek, Mikel Valverde eta Jon Zabaletak osatutako epaimahaia.



www.pamiela.com

Tel.: 948 326 535 / Faxa: 948 326 602
soltxate@pamiela.com



-
- Gaia: amona-biloben arteko harremanak, fantasia.
 - Adin egokia: 6 urtetik aurrera.
 - Nabarmentzako moduko datuak: Euskarazko Album Irudidunak egiteko VI Etxepare Saria; kontakizun poetikoa, kontraste kromatikoak; nagusien eta txikien arteko komunikazioa; egunerokotasunaren magia; maitasuna adierazteko moduak.
-



Miren Asiain Lora

(Iruña 1988)

Arte Ederretan lizentziatua Euskal Herriko Unibertsitatean. Ikasketak: Buenos Aireseko "Universidad del Museo Social Argentino".

Hainbat erakusketetan parte hartu du (*Nafarroako Artista Gazteen Topaketa*, Huarte; *En nuestra habitación un viaje*, La Caja Verde Espacio Cultural, Buenos Aires; *25. Urteurrena-IES Iturrama*, Civivox-Iruña; *Ikas-Art*, BEC-Barakaldo; *Animadrid*, Pozuelo de Alarcón; *II Certamen de Arte Hormonado*, BilbaoArte...).

Eta aldizkari eta proiektu ezberdinetan ere parte hartzen du; Pseudònims aldizkaria, proyecto Ultravioleta (prozesuan)...

<http://www.miaslo.com/miaslo/>
